

Xedapen Orokorrak

KULTURA SAILA

2321

88/2009DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, zinpeko itzultzaile eta interpreteen habilitazioari buruzkoa.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuari buruzkoan, 6. artikuluan esaten denez, euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea; halaber, Autonomia Erkidegoko erakunde komunek, Autonomia Erkidegoaren baitako aniztasun soziolinguistikoa kontuan izanda, bi hizkuntzok erabili ahal izatea bermatu beharko dute, ofizial izatea arautuz, eta horrekin batera, beharrezko neurriak hartu eta baliabideak bideratuko dituzte, euskararen ezagutza ziurtatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen normalizazioaren oinarritzko habe juridikoa Euskararen Erabilera Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea izan da. Lege horrek hizkuntza-politikako ekimenak garatzeko bidea zabaldu zuen, gizarteko eremu giltzarrietan euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeke euskarari hain beharrezkoa zitzaion erakundeen babesa eskainiz. 10/1982ko Oinarrizko Legearen 5. artikulua herritarren eta herri-aginteen eskubide eta eginbeharrak hizkuntzaren alorrean zedarrizten ditu. Halaber, Lege honen 26. artikulua arabera, Euskadiko Autonomi Erkidegoko herri-agintek neurri egokiak hartuko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko dituzte gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko.

10/1982ko Oinarrizko Legearen 12. artikulua haritik, otsailaren 29ko 38/2000 Dekretuak Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala sortu eta arautu zuen. Harrezkero Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala arduratu da euskararako eta euskaratik gaztelaniarako itzulpenen zehaztasuna eta baliokidetasun juridikoa ziurtatzeaz, dokumentuek itzulpen ofiziala behar zutenean. Gaur egun, baina, eskaria areagotu denez, herritarrei zerbitzu hobea eta iristerrazagoa ziurtatzearen, komenigarria da eginkizun hori profesional prestatu eta habilitatuek ere bete ahal izatea. Komenigarria da euskarako zinpeko itzultzaileak habilitatzea, eremu publikoan ez ezik eremu pribatuan ere jardun dezaten.

10/1982 Legea geroko beste mugarri garrantzitsu batzuk bideratu zituen oinarrizko araua izan zen, horien artean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN), 1999. urteko abenduaren 10ean Eusko Legebiltzarrak

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2321

DECRETO 88/2009, de 21 de abril, sobre habilitación de traductores e intérpretes jurados.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, el euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y a usar ambas lenguas; asimismo, las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, teniendo en cuenta la diversidad sociolingüística del País Vasco, deberán garantizar la posibilidad de usar ambas lenguas, regulando su carácter oficial, y arbitrarán y regularán las medidas y medios necesarios para asegurar su conocimiento.

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, ha constituido un sostén jurídico fundamental para la normalización del euskera en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Esta Ley abrió el camino para el desarrollo de iniciativas en materia de política lingüística, ofreciendo al euskera el amparo institucional que tanto precisaba para la recuperación de su conocimiento y uso en ámbitos fundamentales de la sociedad. El artículo 5 de la Ley Básica 10/1982 delimita los derechos de los ciudadanos y deberes de los poderes públicos en materia lingüística. Asimismo, de acuerdo con el artículo 26 de esta Ley, los poderes públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco tomarán las medidas oportunas y los medios necesarios tendentes a fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social.

En cumplimiento del artículo 12 de la Ley Básica 10/1982, el Decreto 38/2000, de 29 de febrero, creó y reguló el Servicio Oficial de Traductores. Desde entonces, ha sido el Servicio Oficial de Traductores el encargado de garantizar la exactitud y equivalencia jurídica de las traducciones al euskera y del euskera al castellano, en los casos en los que los documentos requerían una traducción oficial. Sin embargo, en la actualidad, a la vista del crecimiento de la demanda de este servicio, es conveniente que esta función pueda ser cubierta por profesionales preparados y habilitados. Resulta conveniente habilitar traductores jurados del euskera, para que puedan ejercer tanto en el ámbito público como en el privado.

La Ley 10/1982 ha sido una norma básica que ha abierto el camino a posteriores hitos muy importantes, como por ejemplo el Plan General de Promoción del Uso del Euskera (PGPUE), aprobado por el Parlamento

onetsitakoa. Plan honen helburu garrantzitsua da euskaraz bizi nahi dutenei euskaraz bizi ahal izateko aukera eskaintzeko hizkuntza-politikako neurriak zehaztea eta sustatzea. Azken batean, euskararen aldeko ekintzak indartzea da planaren xedea, Euskadin euskara erabiltzea guztiz normala izan dadin, bai eremu pertsonalean, bai gizarte-eremuan eta baita eremu ofizialean ere. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ezarritako esparru estrategikoetako bat administrazioa da.

Horiek horrela, herritarrek beren hizkuntza-eskubideak behar bezala erabili eta errespetatuak izateko administrazioak ezarritako tresnak dira zinpeko itzultzaileak eta interpreteak.

Bestalde, dekretu honetan ezarritako euskararen ezagutza egiaztatzeari dagokionez, 2008ko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuan eta 2009ko otsailaren 24ko 48/2009 Dekretuan ezarritako baliokidetzak kontuan hartuko dira.

Halaber, lege-, justizia-, administrazio-, ekonomia- eta bestelako harremanak gero eta gehiago ari dira nazioarteko bihurtzen. Beraz, itzulpen zehatzak behar ditugu, euskaratik beste hizkuntzetara eta alderantziz, batez ere, lege, administrazio eta ekonomi arloetako testu eta jardueretan.

Horretarako, probak arautu behar dira zinpeko itzultzaile edo interpreteen lanbide-habilitazioa lortze aldera, bai euskaratik beste hizkuntzetarako eta bai beste hizkuntzetatik euskararako itzulpenak egin ditzaten.

Aipatutako itzultzaile eta interpreteen lanbide-habilitazioak ahalbidetuko du euskararen erabilera, eta, aldi berean, gaztelaniarekin ez ezik gainerako hizkuntzekin ere parekatzeko bidean jarriko du euskara bera, herritarren eskubide eta betebeharrei dagokienez. Halaber euskararen erabilera erraztuko du lege, administrazio nahiz ekonomi arloetako agirien prozeduretan, hauek inoiz euskara ofiziala den lurraldeetatik kanpokoak direnean edo bertan eragiten dutenean.

Horren guztiaren ondorioz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, ezarritako prozedura burutu ondoren, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Kultura sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko apirilaren 21ean egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Helburua.

1.– Dekretu honen xedea da, batetik, zinpeko itzultzaile eta interprete gisa aritu ahal izateko gaikuntza profesionala arautzea, bai euskaratik beste hizkuntzetarako eta bai beste hizkuntzetatik euskararako itzulpen

Vasco el 10 de diciembre de 1999. El principal objetivo de este Plan consiste en decidir y promover las medidas de política lingüística necesarias para garantizar la posibilidad de vivir en euskera a quien así lo desee. En definitiva, consiste en intensificar las acciones a favor del euskera para lograr la total normalización de su uso en Euskadi, en el ámbito personal, social y oficial. Uno de los ámbitos estratégicos establecidos en el Plan General de Promoción del Uso del Euskera es el de la Administración.

Así pues, los traductores e intérpretes jurados son instrumentos establecidos por la Administración para que los derechos lingüísticos sean respetados y ejercidos adecuadamente por los ciudadanos.

Por otra parte, a efectos de acreditación del conocimiento de euskera previsto en este Decreto, se tendrán en cuenta las equivalencias establecidas en el Decreto 64/2008, de 8 de abril de 2008 y el Decreto 48/2009, de 24 de febrero de 2009.

Asimismo, las relaciones del ámbito del derecho, la justicia, la administración, la economía y otros ámbitos se están internacionalizando cada vez más. Así pues, es necesario contar con traducciones precisas, del euskera a otras lenguas y viceversa, especialmente en los textos y las actividades del ámbito del derecho, la administración y la economía.

Para ello es preciso regular las pruebas para la obtención de la habilitación profesional de los traductores e intérpretes jurados, tanto para la traducción e interpretación del euskera a otras lenguas como a la inversa.

Dicha habilitación profesional de los traductores e intérpretes posibilitará la utilización del euskera y, al mismo tiempo, situará a esta lengua en la vía para su equiparación con el castellano y otras lenguas, en cuanto a los derechos y obligaciones de los ciudadanos se refiere. Asimismo, facilitará el uso del euskera en la tramitación de los documentos legales, administrativos o económicos cuando procedan de territorios en donde el euskera no es oficial o cuando tales documentos hayan de surtir efecto en los territorios en donde el euskera es oficial.

Por todo ello, cumplidos los trámites preceptivos a los que se refiere la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de Mujeres y Hombres, y de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo del Gobierno, en su sesión celebrada el día 21 de abril de 2009,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

1.– El objetivo de este Decreto es, por una parte, regular la habilitación profesional para trabajar como traductor e intérprete jurado o traductora o intérprete jurada, del euskera a otras lenguas y de otras lenguas al

eta interpretazio lanetan jarduteko, eta, bestetik, lanbide honetarako gaituak daudenen erregistroa osatzea.

2.– Aurreko azpiatalean aipatutako lanbide-habilitazioa dekretu honetan araututako probak gaindituta lortuko da.

3.– Halaber habilitazioaren jabe egingo dira zazpi-garren artikuluko bigarren xedapena kontuan hartuz izendatutako zinpeko itzultzaile nahiz interpreteak.

4.– Zinpeko itzulpengintzan aritzeko gaikuntza eta zinpeko interpretazioan aritzekoa desberdinak izango dira, alegia, jarduera bakoitzak berea izango du.

2. artikulua.– Itzulpenaren eta interpretazioaren izaera ofiziala.

1.– Dekretu honek arautzen duen lanbide-habilitazioa eskuratzen dutenek egindako itzulpenek eta interpretazioek, euskaratik beste hizkuntzetarakoak nahiz beste hizkuntzetatik euskararakoak, izaera ofiziala izango dute.

2.– Zinpeko itzulpen eta interpretazioaren profesionalek sinadura eta zigiluarekin ziurtatu beharko dituzte beren jardueraren fideltasuna eta zehaztasuna; honetarako erabiliko duten formula izango da jatorrizko hizkuntza, tokia eta data adieraztea. Egiaztapena eta zigilua eranskinetako ereduak hitzez hitz jarraituz egingo dira.

3. artikulua.– Proben hartzaileak.

1.– Lehenbiziko artikuluko bigarren xedapenean aipatutako probak zinpeko itzulpenaren nahiz interpretazioaren habilitazioa lortu nahi dutenen pertsonentzako dira.

2.– Probetan parte hartzeko beharrezkoa da adinez nagusi izatea eta gutxienez diplomatura, ingeniari-tza tekniko, arkitekto tekniko edo baliokidea den beste tituluren bat izatea. Atzerriko tituluren baten jabe izanez gero, homologatutakoa izan beharko du.

4. artikulua.– Probetarako deialdia.

1.– Une bakoitzean hizkuntza-politikan eskuduna den organoak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) gutxienez hiru urtez behin egingo dute probetarako deialdi bateratua. Dekretu hau indarrean jarri eta gehienez urtebeteko epean egingo da lehenbiziko deialdia.

2.– Deialdiak jasoko ditu:

a) Aztergai diren hizkuntzak.
b) Eskerak egiteko epea nahiz tokia, eta erantsi beharreko agiriak.

c) Probak egiteko datak eta tokia.

d) Tasaren zenbatekoa.

euskera, y, por otra, crear el registro de los profesionales habilitados para esta profesión.

2.– La habilitación profesional mencionada en el apartado anterior se obtendrá superando las pruebas reguladas en este Decreto.

3.– Obtendrán también la habilitación de traductores o intérprete jurado quienes sean nombrados según el apartado 2 del artículo 7.

4.– La habilitación para ejercer como traductor jurado o traductora jurada y la habilitación para ejercer como intérprete jurado o jurada serán habilitaciones independientes, por lo que cada una de las actividades contará con su propia habilitación.

Artículo 2.– Carácter oficial de la traducción y de la interpretación.

1.– Las traducciones y las interpretaciones realizadas del euskera a otras lenguas y de otras lenguas al euskera por quienes obtengan la habilitación profesional regulada por este Decreto tendrán carácter oficial.

2.– Los profesionales de la traducción y de la interpretación jurada deberán certificar con su firma y sello la fidelidad y la exactitud de su trabajo. La fórmula que emplearán para ello consistirá en señalar el idioma de origen, el lugar y la fecha en que han realizado su trabajo. La certificación y el sello seguirán literalmente los modelos del anexo.

Artículo 3.– Destinatarios de las pruebas.

1.– Los destinatarios de las pruebas mencionadas en el apartado 2 del artículo 1 serán aquellas personas que deseen obtener la habilitación de traductor o intérprete jurado.

2.– Para participar en las pruebas será necesario ser mayor de edad y poseer como mínimo el título de diplomado, ingeniero técnico, arquitecto técnico u otro equivalente. Los títulos de países extranjeros deberán ser títulos homologados.

Artículo 4.– Convocatoria de las pruebas.

1.– El órgano que en cada momento ostente la competencia de política lingüística y el Instituto Vasco de Administración Pública realizarán, como mínimo, una convocatoria conjunta cada tres años para las pruebas de habilitación profesional. La primera convocatoria se realizará en el plazo máximo de un año desde la entrada en vigor de este Decreto.

2.– La convocatoria deberá indicar:

a) Los idiomas objeto de examen.
b) El plazo y el lugar en los que debe presentarse la solicitud, y los documentos que deberán aportarse junto con la solicitud.

c) Las fechas y el lugar para la realización de las pruebas.

d) El importe de las tasas.

- e) Proben edukia.
- f) Onartutako eta baztertutakoen zerrenda eta proben emaitzak argitaratuko diren tokia.

g) Epaimahaiaren osaera.

5. artikulua.– Epaimahaiaren osaketa eta egitekoak.

1.– Epaimahaiaren osaketa:

a) Presidentea: Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren eskumena duen arloko arduradunak izendatua, gutxienez zuzendari mailakoa.

b) Presidenteordea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) erakundearen ordezkaria.

c) Idazkaria: Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko (IZO) kide bat, botorik gabe.

d) Euskal Herriko Unibertsitatearen proposamenez izendatutako ordezkari bat, lege-, administrazio- edo ekonomia-arloetako itzulpengintza edo interpretazioaren ezagutza duena.

e) Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearen (EIZIE) proposamenez izendatutako ordezkari bat, lege-, administrazio- edo ekonomia-arloetako itzulpengintza edo interpretazioaren ezagutza duena.

f) Euskaltzaindiaren proposamenez izendatutako ordezkari bat, lege-, administrazio- edo ekonomia-arloetako itzulpengintza edo interpretazioaren ezagutza duena.

g) Gehienez sei bokal, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren alorrean eskumena duen arloko arduradunak, IVAPekin adostuta, izendatutakoak, itzulpengintza zein interpretazioan ospe aitortua duten pertsonen artean aukeratutakoak.

2.– Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren eskumena duen arloko arduradunak izendatuko ditu epaimahaiko kideak, ebazpen bidez.

3.– Hauek dira epaimahaiaren egitekoak:

a) Euskarari, zuzenbideari eta beste hizkuntza eta modalitate bakoitzari buruzko probak diseinatzea, lan-tzea, kudeatzea, zuzentzea eta baloratzea.

b) Meritu bidez habilitazioa eskuratu nahi dutenen eskariak ebatzea.

c) Emaitzak onartzea.

d) Berrikusketarako eskaerak erabakitzea.

4.– Epaimahaia osatzeko edo horretan parte hartzeko pertsonak izendatu eta aukeratzekoan sustatuko da gizonen eta emakumeen arteko oreka, betiere gaitasun eta prestakuntza nahikoa bermatuta.

d) El contenido de las pruebas.

e) El lugar en que se publicarán la lista de aprobados y excluidos y los resultados de las pruebas.

f) La composición del tribunal.

Artículo 5.– Composición y funciones del tribunal.

1.– El tribunal se compondrá de la siguiente manera:

a) Presidente: designado o designada por el órgano competente en política lingüística del Gobierno Vasco, con rango de director o directora, como mínimo.

b) Vicepresidencia: corresponderá al o a la representante del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP).

c) Secretaría: corresponderá a un o una miembro del Servicio Oficial de Traductores, sin derecho a voto.

d) Un o una representante designado a propuesta de la Universidad del País Vasco, con conocimientos en traducción o interpretación de textos jurídicos, administrativos o económicos.

e) Un o una representante designado a propuesta de la Asociación de Traductores, Correctores e Intérpretes de Lengua Vasca, EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte), con conocimientos en traducción o interpretación de textos jurídicos, administrativos o económicos.

f) Un o una representante designado a propuesta de Euskaltzaindia, con conocimientos en traducción o interpretación de textos jurídicos, administrativos o económicos.

g) Seis vocales, como máximo, designados o designadas por el órgano competente en política lingüística del Gobierno Vasco, de acuerdo con el IVAP, entre personas de reconocido prestigio en el campo de la traducción y la interpretación.

2.– Las personas que compondrán el tribunal serán nombradas por el órgano competente en política lingüística del Gobierno Vasco, mediante resolución.

3.– Éstas serán las funciones del tribunal:

a) Diseñar, elaborar, gestionar, dirigir y valorar las pruebas correspondientes al euskera, al derecho y a otras lenguas y modalidades.

b) Resolver las solicitudes de habilitación por méritos.

c) Aprobar los resultados.

d) Resolver las solicitudes de revisión.

4.– Deberá promoverse el equilibrio entre hombres y mujeres en la selección y la designación de las personas que compondrán y participarán en el tribunal, garantizando siempre que tengan suficiente capacidad y formación.

5.– Epaimahaiak, hala erabakiz gero, bere eginkizunak hobeto burutzeko, une bakoitzean hizkuntza-politika gaietan eskuduna den organoko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) edo kanpoko zerbitzu teknikoen laguntza izan dezake.

6.– Epaimahaiaren funtzionamendua azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritakoari lotuta egongo da.

6. artikulua.– Proben erregimena.

1.– Proba orokorrak eta espezifikokoak izango dira. Orokorrak euskarari eta zuzenbideari buruzkoak izango dira. Espezifikokoak, aldiz, zuzeneko itzulpena nahiz alderantzizkoa eta loturazko, aldibereko edo esan osteko interpretazioarena.

2.– Deialdi bakoitzari dagokion proben edukia arautuko du hizkuntza-politikan eskuduna den organoak, eta horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin (IVAP) lankidetzan jardungo du.

3.– Proba orokorrak eta espezifikokoak baztertzailak izango dira. Proba orokorretan lorturiko kalifikazioa «gai» izan bada, baliagarria izango da hiru urteko epean, deialdiaren argitalpenaren egunetik kontatzen hasita.

4.– Habilitazioa lortzeko probetan, eskatzen den euskara-maila frogatzetik salbuesita egongo dira Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren C2 maila egiaztatzen duten titulu edo ziurtagiriren bat dutenak, eta Itzulpengintzan eta Interpretazioan euskara A hizkuntza izanik lizentziatuak edo gradu mailako titulazioaren jabe direnak. Zuzenbide probatik berri, salbuesita egongo dira Zuzenbidean lizentziatuak edo gradu mailako titulazioaren jabe direnak.

7. artikulua.– Izendapena.

1.– Dekretu honetan araututako probak gairatzen dituzten izendapena Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren eskumena duen arloko arduradunak egingo du. Izendapenak EHAAen argitaratuko dira.

2.– Honako hauek eska dezakete izendapena dekretu honetan araututako probak egin gabe:

a) Itzulpengintza eta Interpretazioko tituluaren jabe direnek baldin eta unibertsitateko ziurtagiri akademikoaren bidez baieztatzen badute berriazko prestakuntza dutela, izendapena eskatzen den hizkuntza-bikotean, lege-, administrazio- eta ekonomia-arloetako itzulpenen (zinpoko itzultzailearen habilitaziorako) eta ahozko interpretazioan (zinpoko interpretearen habilitaziorako). Euskarari dagokionez, Itzulpengintzan eta Interpretazioan euskara A hizkuntza izan gabe lizentziatua edo gradu mailako titulazioaren jabe denak, Hizkun-

5.– En caso de que así lo decida, el tribunal podrá contar, para el mejor desempeño de sus funciones, con la ayuda de los servicios técnicos del órgano que en cada momento ostente la competencia sobre la política lingüística, del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), o de servicios técnicos externos.

6.– El funcionamiento del tribunal se atenderá a lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y el Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 6.– Régimen de las pruebas.

1.– La convocatoria contará con pruebas generales y específicas. Las pruebas generales serán de euskera y de derecho; las específicas, por su parte, consistirán en ejercicios de traducción directa o inversa y ejercicios de interpretación simultánea, de enlace o de interpretación consecutiva.

2.– En cada convocatoria, el órgano que ostente la competencia sobre política lingüística regulará el contenido de las pruebas, en colaboración con el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP).

3.– Las pruebas generales y específicas serán eliminatorias. En caso de que la calificación de las pruebas generales sea de «apto», la misma será válida durante un plazo de tres años, a contar desde la publicación de la convocatoria.

4.– En las pruebas para obtener la habilitación, estarán exentos de acreditar el nivel de euskera quienes posean un título o certificado que acredite el nivel C2 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, así como quienes habiendo tenido como lengua A el euskera en la carrera de Traducción e Interpretación, posean título de licenciado o postgrado de esa carrera. Quedarán exentos de la prueba de Derecho, a su vez, quienes posean título de licenciado o de postgrado de Derecho.

Artículo 7.– Nombramiento.

1.– El nombramiento de quienes superen las pruebas reguladas en este Decreto lo realizará el órgano competente en política lingüística del Gobierno Vasco. Los nombramientos se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Podrán solicitar el nombramiento sin realizar las pruebas reguladas en este Decreto:

a) Quienes posean el título de Traducción e Interpretación, siempre que confirmen mediante certificado académico universitario que poseen formación específica en la traducción del par de idiomas que se solicita en los ámbitos jurídico, administrativo y económico, para la habilitación como traductor jurado o traductora jurada y en la interpretación oral del par de idiomas que se solicita, para la habilitación como intérprete jurado. Quienes hayan obtenido el título de licenciado o graduado en Traducción e Interpretación sin cursar el

tzen Europako Erreferentzia Markoaren C2 mailako tituluren baten jabe izan beharko du.

b) Kanpo Arazoetako Ministerioak emandako euskarako zinpeko itzultzailearen izendapena eskuratu dutenek.

c) Xedapen honetan arautzen diren modalitateetan, lege, administrazio eta ekonomia-arloetan itzulpenak eta interpretazio-lanak egin daitezkeen kasuan meritu bidezko habilitazioa egin ahal izango da. Horretarako, beharrezkoa da interesatuek egiaztatzea langintza horretan aritu direla hamabi urtez, jarraian eta jardura nagusi gisa, bai eta zein testu itzuli dituzten eta zein lan interpretatu duten, betiere lege-, administrazio- eta ekonomia-arloetan. Meritu horiek dagokien administrazio, unibertsitate, enpresa zein bestelako enpresen zuzentzaile bidez egiaztatuko dira. Halaber, habilitazioa eskatzen den unean itzultzaile edo interprete lanetan jardun behar du. Haien eskabideak banan-banan aztertuko ditu epaimahaiak, eta hala ebaziko ditu, lanean erabili diren hizkuntzak eta egin diren itzultzaile/interprete lanak kontuan izanda. Meritu bidezko habilitazioa, ez ohikoa denez gero, behin bakarrean eta azken xedapenetako lehenengoaren arabera egingo da.

3.– Zazpigarren artikuluko honetako 2.a) azpiatalean aipatutako berariazko prestakuntzat hartuko da:

a) Itzultzaile habilitazioa eskuratzeko: gutxienez hogeita lau kreditu (Europako Unibertsitate Eremuan kredituak neurtzeko erabiltzen den European Credit Transfer System –ECTS– kreditu-unitatea kontuan hartuz) gainditu izana, habilitaziorako eskatzen den hizkuntza-bikoteari dagozkion itzulpen-praktiketako irakasgaietan. Era honetara banatuta:

– Hogeita lau kreditu horietatik gutxienez hamabi administrazio-, lege- eta ekonomia-arloetako testuen itzulpenari dagozkionak izango dira, irakasgaiaren programaren arabera. Irakasgai horiek graduondoko ikasketetakoak ere izan daitezke.

– Gainontzeko kredituak, hogeita lau osatu arte, beste modu hauetara lor daitezke: enpresetan praktikak eginez (dagozkion unibertsitateak bermatu eta babestuta) edo ikasketa amaierako proiektua eginez, beti ere zuzeneko harremana badute lege eta administrazio edo ekonomiazko testuen itzulpenekin.

b) Interprete habilitazioa eskuratzeko:

– Gutxienez 24 (hogeita lau) kreditu (ECTS) gainditu izana, habilitaziorako eskatzen den hizkuntza-bikoteari dagozkion interpretazio-praktiketako irakasgaietan. Irakasgai horiek graduondoko ikasketetakoak ere izan daitezke.

euskerara como lengua A, deberán poseer un título o certificado de euskera que acredite el nivel C2 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

b) Quienes hayan adquirido el nombramiento de traductor jurado o traductora jurada de euskera otorgado por el Ministerio de Asuntos Exteriores.

c) Podrá realizarse una habilitación por méritos de quienes hayan realizado trabajos de traducción e interpretación legal, administrativa y económica, en las modalidades que se regulan en esta disposición. Para ello, es necesario que los interesados acrediten haberse dedicado a esas tareas durante doce años consecutivos y como actividad principal. Tendrán que acreditar, asimismo, los textos traducidos y los trabajos de interpretación realizados, que deberán pertenecer en todo caso al campo de la traducción e interpretación jurídica, administrativa y económica. Tales méritos se acreditarán mediante los correspondientes certificados administrativos, universitarios o empresariales o de otra índole. Asimismo, quienes soliciten la habilitación deberán estar ejerciendo la actividad de traductor o traductora o intérprete en el momento de solicitarla. El tribunal examinará y resolverá las solicitudes individualmente, considerando los idiomas con los que se ha trabajado y las labores de traducción e interpretación realizadas. La habilitación por méritos, dado su carácter extraordinario, se efectuará en una sola vez de acuerdo con lo recogido en la disposición final primera.

3.– En lo referido al apartado 2.a) del presente artículo 7, se considerará como formación específica:

a) Para la obtención de la habilitación de traductor: haber obtenido como mínimo veinticuatro créditos (según la unidad de crédito del sistema European Credit Transfer System –ECTS– para el cómputo de los créditos) en las asignaturas correspondientes a las prácticas de traducción del par de idiomas para el que se solicita la habilitación, distribuidos de la siguiente manera:

– De esos veinticuatro créditos, al menos doce corresponderán a la traducción de textos pertenecientes a los campos de la administración, el derecho y la economía, según el programa de la asignatura. Esas asignaturas pueden igualmente pertenecer a estudios de postgrado.

– El resto de los créditos, hasta completar los veinticuatro, pueden obtenerse de estas otras formas: mediante la realización de prácticas en empresas (garantizadas y protegidas por la universidad correspondiente) o mediante la realización del proyecto de fin de estudios, siempre que guarden una relación directa con la traducción de textos legales, administrativos o económicos.

b) Para obtener la habilitación de intérprete:

– Haber superado 24 créditos (ECTS) como mínimo en las asignaturas de prácticas de interpretación del par de idiomas para el que se solicita la habilitación. Esas asignaturas pueden igualmente pertenecer a estudios de postgrado.

8. artikulua.– Erakundeen arteko lankidetzak.

Hizkuntza-politikaren arloan une bakoitzean eskuduna den organoaren ardurapean, zinpeko itzultzaile eta interpreteen arloan eskumena duten erakundeen arteko lankidetzak sustatuko da, bereziki, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin (IVAP).

9. artikulua.– Zinpeko itzultzaile eta interpreteen erregistroa.

Zinpeko itzultzaileen eta interpreteen erregistroa sortu eta arautuko du Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren eskumena duen saileko sailburuak aginduen bidez. Erregistroan, besteak beste, sexu-aldagaia kontuan hartuko da.

10. artikulua.– Epaimahaiak egindako lanak eragindako gastuak ordaintzea.

Epaimahaiko kideek dietak edota konpentsazioak jasotzeko eskubidea izango dute organo horretan parte hartzeagatik izandako gastuengatik. Ordainketa hauek zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta indarrean den araudian ezarritakoaren arabera eguneko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Meritu bidezko habilitazioa eskuratu ahal izateko deialdia egingo da berriaz dekretu hau indarrean jarri eta bederatzigarren hilabeteko gehieneko epean. Salbuespenezkoa eta, hortaz, bakarrik izango den deialdi honetan jasoko dira hautagaien merituen baloratzeko epaimahaiak kontuan hartuko dituen irizpideak. Aurkezten diren eskaerak gehieneko hiru hilabeteko epean ebatziko dira, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik hasita.

Bigarrena.– Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren eskumena duen arloko Sailburuari baimena ematen zaio beharrezko xedapenak eman ditzen Dekretu honetan jasotakoa indarrean jarri eta garatzeko.

Hirugarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo eguneko jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko apirilaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

Artículo 8.– Colaboración entre instituciones.

Se promoverá la colaboración entre las instituciones que tengan atribuidas competencias en el ámbito de la traducción e interpretación jurada, especialmente la colaboración con el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), bajo la responsabilidad del órgano que en cada momento ostente la competencia en política lingüística.

Artículo 9.– Registro de traductores e intérpretes jurados.

Se creará y regulará el registro de traductores e intérpretes jurados por Orden del consejero o consejera competente en materia de política lingüística del Gobierno Vasco. El registro tendrá en cuenta entre otras la variable de sexo.

Artículo 10.– Remuneración de los trabajos realizados por el tribunal.

Los miembros del tribunal tendrán derecho a obtener dietas y compensaciones por los gastos originados por la participación en dicho órgano. Tales pagos se realizarán según lo establecido por el Decreto 16/1993, de 2 de febrero y la normativa vigente referente a las indemnizaciones por razón de servicio.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se realizará expresamente la convocatoria para la obtención de la habilitación por méritos en el plazo máximo de nueve meses desde la entrada en vigor de este Decreto. En la convocatoria, que será única, se fijarán los criterios por los que el tribunal valorará los méritos de los candidatos o las candidatas. Las solicitudes presentadas serán resueltas en un plazo máximo de tres meses, contados desde la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Segunda.– Se autoriza a la persona titular del Departamento competente en materia de política lingüística del Gobierno Vasco para que dicte las disposiciones que sean necesarias para la puesta en vigor y desarrollo de lo establecido en este Decreto.

Tercera.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

I. ERANSKINA

ZIURTAGIRI ETA ZIGILU EREDUAK

Ziurtagiria:

(Izen-abizenak)(e)k, (hizkuntza)ko zinpeko itzultzaile/interprete naizen aldetik, honako hau ziurtatzen dut:

(Xedeko hizkuntza)(e)rako itzulpen hau (jatorrizko hizkuntza)z idatzitako jatorrizko agiriaren edukiarekin guztiz bat datorrela.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau izenpe-tzen dut...

(Tokia eta eguna)

(Zigilua)

(Sinadura)

Zigilua:

Zigiluan datu hauek jasoko dira inolako eranskin eta ikur motarik gabe:

a) Zinpeko itzultzaile edo interpretearen izen-abizenak.

b) Erregistro zenbakia.

c) IFZ.

d) Habilitazioa zein hizkuntza eta modalitateetarako lortu duen.

e) Helbide eta telefonoa edo faxa edo helbide elektronikoa.

ANEXO AL DECRETO 88/2009, DE 21 DE ABRIL

MODELOS DE CERTIFICADO Y SELLO

Certificado:

(Nombre y apellidos), como (traductor jurado o traductora jurada, o intérprete jurado o intérprete jurada) de (lengua).

Certifico: que esta traducción al (lengua de destino) es completa y fiel al documento original redactado en (lengua de origen).

Y, para que así conste, firmo este certificado.

(Localidad y fecha)

(Sello)

(Firma)

Sello:

En el sello deben figurar, sin ningún tipo de añadido ni de símbolo, los datos siguientes:

a) Nombre y apellidos del traductor o intérprete jurado o traductora o intérprete jurada.

b) Número de registro.

c) NIF.

d) Lenguas y modalidades para las que está habilitado.

e) Dirección y teléfono o fax o dirección electrónica.